GARILLA
16
Eguena
Bilbao, 1936

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru lin.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "
Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.349 zenbakia

Gayak

URTORO LEZ

Larakoetxea'tar Ipolita Abea, emen ixan dogu.

Roma'tik etori da. Eta Euzkadi'n oñak imiñi dabezaneko, bere sendi kutunetik asita, oturazko ikertal ditxubak egin dauz, eta gu agurtuten etori.

Ipolita karmeldar Aba agurgarijak egin ixan dauskun agurari, anai-antzo erantzun dautsagu, ta matetasunez besarkatu.

Ipolita Aba argija, an italiaren uri nagusijan, irakasle ixaten da, ta Doibatz-lagidija edo "derecho canónico" ira kasten dau.

Lan aztuna ziñez, Beraz, nekosua be bai. Eta nekiak, atsedena beria dau. Ipolita Abea be oretantxe etori da, ba: urteroko atseden-alditxuba bere aberi matian artzen. Ondo-etorija, Ipolita, ta Gorbea'ko axe garbi ozkiriz birijak asetu barik ez atzeriratu, ezta Gorbea-bizkareko artzain talogiñaren azal biko talo me gozua ardi-esnetan beratuta jan barik be.

Gorbea-txuntxureko axe garbi ozkiriz birikijak axetu, ta Gorbea-bizkareko talogin artezijaren taluakaz eta Gorbea-laretako bedar eze gozuakaz alikatuten diran ardijen esne osasungarijakaz asebetetan ba-zara, Mussolini'ren trumoi-axia putz bategaz uxatuteko beste indar birijetaratuko dozu, ta atzeri-usain gustijak ayenatuteko beste adore bijotzeratu.

Eta zu, aurerantzian be, Karmel'go Ama Neskutza'ren jairako, emen ixan go zatugu: urtoro lez zeure sendija ta adizkidiak ikertuten. Alan ixan bedi.

BEDERATZIURENA

Karmel'go Ama Neskutza'ren aintzazko bederatziurena, atzo amatu zan.

Beraz, Begoña'ko karmeldaren txadonara egunoro elduten ixan diranen goiz eta aratsaldetako aldatz-igotiak atzo amatu ziran.

Igazi diran bederatzi egun oretan, bilbaotarak ondo agertu ixan dabe Karmel'go Ama matiari dautsoen eraspena.

Goiz eta aratsalde eten bako juan etorijan aldatzak gora ta bera, ibili ixan diran beste notin ibilteko, eraspena edo zeozer biar be ba-da.

Ama - egari diranak ituriratuteko, iturijak be, gero, alakoxiak imiñi ixan dabez karmeldar lekaide begi-ernai ta usain-artzale argijak: aitz-ur egari danarentzat, aitz-ur garden ozkirija. Eta metal-ura esaten yakena gura dabenentzat, ostera, miatz-margodun ura. Edo beste era batera esanda: euzkerearen ur gardena gura dauanarentzat, euzkerea. Eta gaztelerea gurago dabenentzat, ostera, gaztelerea.

Guri, Gorbea, Oiz, Urkiola ta beste berein mendi jasuetako aitz-ur gardena ta ozkirija edaten otuta gagozanoi, aitz-ura begikuago ixan yaku, ta aitz-urak bere urbegira eruaten ixan gatu.

Apolinar Aba agurgarijak, bariz, esku-zabala ixan ba-ta, iturbegitik, bertatik, gurañe emoten ixan dausku, ta ase-ase eginda imiñi.

Martin Abeak idatziriko bederatziurena, geruago ta begikuago egiten yaku, egin be. Irakuri be, gero, karmeldar lekaide gastiak, txukun egiten dabe: argi, ta itzak garbi oguzita.

Goiko abestokitik abestuten ixan dabenak be, euzkel-abesti ederik asko entzunazo ixan dauskubez, ta bai txauneskiñak trebeki lagundu be.

Betik, be, lekaime-ikastetxeko neskato ikasletxubak, polito erantzuten ixan dabe; tamalez makal-samar. Eta makal-samar abestute orek euzkerean be makaltxu dagozanaren antza erakusten ixan dau: euzkera-jakiz ondo. alikatu bako umien antza.

Indarik ixango ba-da, ixan, ondo jan biar da, ba, ta ondo edan be: Gorbea'ko artzain-mutilak egiten dabena: azal biko talua ta ardi-esniaz urdalak sendotu, ta bixi diran-areko indar-jabe egin.

JON DEUNEN ERTXA-DONAN

Bilbao'ko txadon onetan be, Karmel'go Ama Neskutza'ren bederatziurena, ele bitara egiten ixan dabe: euzkeraz eta gazteleraz. Beraz, Isusi'tar Augustin argijak be, iturri bi imiñi ixan dauskus: aitz-iturija, ta burni-iturija.

Bederatziuren au be, atzo amatu zan. Eta bertan, Arana'tar Deunoro jaupari euzkeldun barijak, berak egiten dakixelako euzkerazko itzaldi egoki bat oguzi eban.

Karmel'go Ama Neskutza'ren janzki-era ta ixakera doniak eredutzat agertubaz, gauf egunetako emakumien janzkera nabarbenai akar egin eutsen, eta gixonaren galbidia sortuten daben bidiaren erudun, eurak, emakumiak zirala, esan.

Emakumia, eratsuba ixan biar zala, iñuan. Eta eratsuben eredu, Miren Neskutza agertu eban. ¡Ederto Deunoro!

"KARMEN EGUNA"

Ixen au ondo be ondo gomutetan dot. Ni gastetxuba ixan nintzan aldijan be, gaurko egun aundi oni, olantxe esaten yakan: "Karmen eguna".

Eta "Karmen egunian" "Lara,,'ra juaten etzan gitxi ixaten zan. Bermeo'n asita Zornotza'ra bitarteko erijak, aurez Lara'ratuten zirala-ta nago.

Berarizko bultzijak be iminten ebezan. Eta euretan gastedijaren gogo alayak leku berezija ixaten eben. ¡Arein ujuju ta ijijijak!

Neuri be, bein edo bein eldu biar-ta, Lara'ra juateko aldija eldu yatan. Juate a lortuko ba-neban, lortu, baña, lenengo berein lan bardinge egin biara ixan neban. Nire ama, zana, Goikua'k donokijan ixango al-dau, zurretan be zurra zan, ba. Eta onako ibiltalditxubak egitia-ta, euneko etekin eta gusti ordaindu eragiten euskun.

—Ia. mutil, ¡zoli-zoli!, Karmen eguna Lara'ra juateko be—esaten eban, eta mendijan pekorotz - batzerañoko gustija egiñazo.

Lenengoz Lara'ratu nintzan aldijan, nik, amalau urte edo gitxijago ixango nebazan. Eta orduban nabatu ixan neban poza ta atsegiña ixatiaren, bariro bertaratuko nintzake.

Baña, ez. Poz eta atsegin areik, antxiña atzindu ziran. Ondorengo urtietan be ixan naz, ba. Baña ainbat poz eta atsegin idoro ixan nebazan lekuban, euren oroitza-ikura baño besterik eztot idoro ixan.

Lara-birako arizti kerizpetsubak eta arein azpijan of-emenka ikusten ziran jan-toki ta jolasak, ¡nun sartu ete-ziran! Nire gastaruan mardul eta kerizpetsu jasoten ziran arizti areik, gauf eztira, an, ikusten; euren azpijetan ixaten ziran jatokijak bez, ezta landa areian ixardi bitzetan jolastuten ziran neska-mutil mizkiak be.

Areik danak atzindu ziran. Eta eurakin, nire gastarua ta orduko poz -atsegiñak be.

Orain egiten dodana ezta, ba, besterik, atzian urun geldidu ixan yatan oroitza-leruari begiratuaz, oroitza-pozaz alikatu baño.

Eta oroitza-leruan beste gauza askoren artian ¡rakurten dodana, "Antonio bibolinterua" zanaren dantza-abesti auxe ixaten da:

"Jolastu gura bozu, ilunabarian,
Zornotza'ra etori Karmen egunian."

IBON.

¡Entzun bai entzun!

"¡Entzun ondo!" buru dabela idatzitako idazlan bat irakuri genduban artumin izpariñgi onetan. Idazlea "Erletxue" ezaguna genduban. Berak diñozanak gauza zarak eztira, eta bai egunaro begijan aurian argiro ikusten doguzanak. Zeozegatik dirautzo "Lauaxeta" adizkidiak bere uarian; "Erletxue" adizkide zarak "Entzun ondo" dirausku, baña bere abotsa basamortuban galduko dalakua eskijer dakigu.

Neuk neure Ipuin liburutxua ezebe enekijela argitaldu neban, arintxubago jakitiaz pizkat itxarongo neban. Baña euzkera aldez mara-mara dabiltzazan asko guzurian sartun da dagoz, euzkera alde esaten diran asko utzak jakuz, eta beste bide bat artuten eztan artian geure izkuntzea lotsagaripean ixango dogu.

Ara, egun asko eztala neuk ikusi dot. Neure erijan ikusi, be. Mutiltxu batzuk ibili ziran Ipuin idaztiñuak saltzen, euzkera aldez beti ekiñian dabilan jaun bateganą zuzendu ziran usterik jaun onek pozik artungo ebazala, baña etzan oretara ixan, jaun arek porot egin eutsan laurleko bateko idaztiñuari.

Eskerik asko. Oneik gora-bera galduko jaku geure izkuntzea.

Dana dala euzkera zabaldu gurean zerbait egiten daben idazliari espajako lagunduten ori baño geyago. ¿Zelan aurerantz jarratuteko zaletu idazlia?

Beregun ixen baño eztirala oindiño batun? ¡Nun dira, ba, Bilbao'ko eta ingirutako euzkeltzaliak? ¿Ez ete dau euzkereak au baño laguntasun geyago biar?

"Erletxue" adizkide mateak diadar dagi. "Euzkel-Idazti-Alde" deritxon bazkunak danon laguntasuna biar ei dau, eta egija da, ixan, be.

Ixena emon daben gustijak agertu biar gendukez ikusteko benetako euzkera matalea nor dan, gauf-arte ez jakiñian edo egon dana bijar bere ixena emotean alegindu bedi, euzkereari laguntasun aundija opalduko dautso, era oretan ixan ezik ezin euzkerazko idaztiñorik argitaldu leteke.

Bete ainbat ariñen arpidedun agirla eta bialdu zuzenbidiak diñolez "Lauaxeta,,'n ixenian, bera da, ba. asmo au sortu dabena, eta "Lauaxeta,,'k gauf arte sortu dabezan, asmo gustijak, jarai ona, eta bide egokikuak ixan dirana ezin ukatu.

Asmo au utsik itxiko ete dogu? Ez, asmo au aurera eruan biar dogu, aurera eruan eta zabaldu idazti bidez geure erdi negarez dogun elea. Zentzunaz begiratuten badogu bijotzak eragin egingo dausku. ¡Entzun ondo! ¡Entzun bai entzun!

OGOÑOPE.

Madrid'en garila'n 11'garenian.

Irakurri EUZKADI

Olerti - atalak

Lilluratuarena

Neskatil gorriska bati.

Mendi-goitik ur pilpil;
lats oren gardena!
Goitar eluf txurien
bezin garbi zaudena:

Nik eztakit
zer duten
zure begi
urdiñok...!
Txoraturik
naukaten
edergari
oztiñok...!

Begi orein bildurez
deuseztuta saminki.
Zugaitikan yoranez
negar dagit itunki.

¡Neuk ba'neki
zer duten
zure begi
urdiñok...!
Sumindurik
naukaten
maitagari
oztiñok...!

BORTANE.

Uara.—Adiskide: Eibar'en ere olerkariak sortuko zirala uste neban. Zu izango zaitugu bata? Gaste zara, urteak aurez dituzu. Geure euzko-olerkarien lanak irakuri egizuz, eurengandik asko ikasi daikezu-ta. Pozik goratzen zaitut. Jel-grauz agurtzen zaitudala. Zeure, Lauaxeta.

Aur - min

Goiko soro aren lertzea...
Garirik mardulen eltzea.
Neskatx apain bar, urats geldi.
sororantz barenak austea.

Sagastiko sagar gaztiak
punta-puntan dantzan lorea.
Neskatx apain; udaberiak
eman ziñan ba loratzea...

Min diñat-min bizi-barnean.
Garirik mardulen eltzea...
Neskato: noizako irean
izango diñagu gauzea...?

Gariak bilduta; sagarak
gañean atseden eziña...
Neskato; sagartxo ireak
kir-kir-kir mamian ler-miña!

Goiko soro aren lertzea;
gariak bilduta etxea.
Neskatx apain; etxerantz geldi..
Aur-miña barnean daukea.

... ...

"Bil nadin ixillik
bil nadin nerera."
Jendea badator
lanetik etxera.
Eguzki gordetzen
"Gaztelu" atzera.
Argiak egin du...
Betor ilun-bera!

Neskatil gazteak
barnean ler-miña;
gorputzen ikara
estutzeko aña...
Gariak ixillik...
Gauaren berdiña....
Neskari jun zaio
atseden eziña.

Piu-pi, pi-pi-ri,
txoria kabitik;
maite-iripara
berion aotik...
argiz betedjtun
sagar da arizt ik...
Aurren eskuak
amaren kolkotik!

... ...

"Bil nadin ixillik
bil nadin nerera."
Jendea badoa
etxetik lanera..
"Aur onen beara"
nere bularera.."
Txoria kantari
sasitik sasira.

Aurren ama
ixillik...
Amaren aura
poz-pozik.
Garia gori...
Sagarak geldi....
Egoak danak
jo zetik.

LIZARAGA'TAR K.

Adizkide on-ona: Pozik jaso ditut zureak. Irikitzen nintzan zure batzu irakurtzeko. Datoren igandez Beasain-aldetik izango nauzu ta beriketaldi bat egiten atsegin izanen zait. Olerkari trebe zaitugun ezkero, jarai bide ortaz. Beti zure, Lauaxeta.

Gezur - Maitasuna

Gaztaroa ta udalena. senide.
Baita lorak eta maitasuna ere.
Eta, zer ote euzki-jaunaren kide?
Jari dezagun zaldun maitemintzale...

Gizadi udalena, gaztaroa da.
Gazte aba, beriz, udalen lora:
Gori, guri, leun...: larosa iduri.
Euzki edo zalduntxoen amets guri...

Gozo oi, udalenez, euzki-laztana.
Orela gaztaroan maitearena.
Nork zalantzik, orduan, euzki orengan?
¡Ain eme jun oi da udalen goizetan!

Euzkiak bere esku lora maiteño.
—Mimiko edaria ustu arteño...—
Larosak poz-iri espa-ori zabal.
Ortzurik agiri. Edo, inguna al?

Ai, aldi ori or geldi al baledi,
ta zaldun jaun oren maitasuna egi...!
Udalena, gaztaroa, maitasuna!
Baña ai, gau beltzak estaltzen eguna!

Aroa aldatuz, euzkia zitaldu...
Zaldun egarti ori zerk aseko du?
Zipotza! Oro eman ta geiago nai.
Ta berak, ordañez, ainbeste sastakai!

—Gezur-maitasuna, onez diraun ar-(te...—
Luferako orain lengo lora maite:
España-ximur, zarpil bai-dago gaxoa!
Izkuta zaio lorako ingumatxoa...

Ez ifi, ez lilura, ez itxadopen...
Ona, neska garatua zela oi den,
gezur-maitasuna murtxatu ondoren.
Ta ola, zenbat lora ximeltzen diren...!

FREÑO.

Maitasun bat neban

Maitasun bat neban, maitasun bena,
bixitza onen zoragaria.
Maitale liraña, eder ta leuna:
maitale oso maitagaria.
Umeak aren be gure biotzak
urezko ariz ondo josirik
biok ba-genbiltzan esku-oratuz
maitasun-bide loratsutatik.

Maitasun bat neban...

Udazkeneko ekaitzen itzalak
urundu eustan neure maitea.
Geroztikan nabil bakartasunak
itxita maitasun-begia.
Maitasun-begia itxita-aren
neure biotza zaurizka dago.
Maitasun-zauri au osatuteko
maitatu bear orain bariro.

Maitasun bat neban...

Euzkeraganako maitetasuna
zatorkit bariz neure barnera.
Zeure ezti gozoaz maite-zauri au
oso-osoan osatutera.
Maitasun bat daukot, maitasun bena,
bizitza onen zoragaria.
Maitale liraña, neure EUZKERA!
maitale oso maitagaria!

ONDARTZAPE.

Mundaka'n.

Tasunak eta keriak

Alkaren leyan, zalapartaka
asi yakuzan aspaldi,
alde batetik tasunak eta
keriak beste batetik.

Ordutik ona buruka otsak
nabaitzen doguz ugari,
maitakeria ezari guraz
maitasunaren gañetik.

Gizontasuna boladan doa
gure ondotik igesi,
onen tokian yarten dalarik
gizakeria naguzi.

Ontasunaren aztarnik ez da
mundu onetan agiri;
gaiztakeriak atara zitun
aren emaitzak zustraitik;
onenbestegaz, lurean sortuz,
gorroto sua biziki.

Keriak berez iguiñak doguz,
tasunak bariz, maiteak;
ipuintxo onetan ikasi zeinkoa
ontasunaren bideak.

ARUGAIN.

"Mendizaleak" ekin di[illegible] lanari. Eta ¡nola ekin[illegible]

(Igandeko ibillaldiaz)

¿Nai al dek nerekin etori, irakurle? Araiar menditik etxeratzea egin diat eta ango edertasunez beteak zeuzkat ene begiak. Eskua danaiat, eta jaraitzen banatzaik, ikusi eta entzun ditudanen beri izango dek zeazki. Eta abertzale purukatu aizelarik, etzaik ene eskutik ibiltzea damu izango. ¡Bai zera! Ziur nauk. Mendizaleen etxepean babestea izango dek amets. ¿Ezetz? Goazik prozera.

AURE-ITZA.—Joan zan astez dei egin ziguten "Mendizaleak" elkarteko agintarua! ¿Norako deia? Legazpiar langileak kutxa bat ipintzekoak zirala Txindoki galurean, eta bertara.

Donostiar, legazpiar eta [illegible]sarak antxe izanak gaituk ba. Beste eri batzuetakuak ere bai. ¡Eta zeñen pozik itzuliak gaituken etxera! Ikusiko dek.

LARAITZ'EN.—Gaur goizez, igandez, Laraitz'en batu gaituk "Mendizaleen" deia entzun genikenak. Giroa aparta uken. Gutxitan bezelakoa. Asiko nintzaikek begietan josita gelditu zaidaken edertasunaz mintzatzen. ¿Zertarako baño? Gure mendien edera begietan sartua bai zeramagu abertzaleok. Ao batez genitxioken biierako guziak: ¡bai dala edera gure eusko-abera!

TXINDOKI'RUNTZ ETA TXINDOKI'N. — Bereun bat laguneko taldea abiatu gaituk Txindoki'runtz. Ez genian geientsunak alkar ezagutzen. Alaz guztiz, adiskide-miñak antzo begiratzen genitxioken alkari: ¡abertzaleak bai giñuken!

Tapa-tapa, izadiaren aunditasuna, eguzkiaren muxuba, eta adiskidetasunaren zorakortasuna lagun zintzo eta lelalak genizkialarik, goruntz ginjoazken.

Lagun batek ala esan zidan belarira: -Maite ditut galurak argiak ez beste... ai, egaztia banintz, gañik-gain nebilke!" Lizardi'ren apaldi au izan ark nonbait ausnarean.

Eta neri ere bat-batean, Lizardi'ren olerki baten oroitza ziritu zitzaidaken barne-barnean:

.Nik ametsetan bezela
ote aiz. mendi gaña?
Goi-jauregiko maia?
Gotzonen urbilago...?
Egiz, Jaungoikoa'ren
esku ta aunditasuna
ote dituk or goitik
sumatzen bertago...?"

Gorago eta bertago somatzen bai geniken Lizardi'ren ametsa: "Goi-jauregiko maia...? Gotzonen urbilago..?"

KUTXA LEGAZPIARAK "MENDI ZALEAK".—Kutxa polita legazpiarak Txindoki galurean ipiñi ditekena. Etxetxo bat... ¡nolako etxea!

Mendizale taldea goian gindukalarik, une bateko lana kutxa bere mendiari erotutzea: auretik prestatuta bai ukan lekua.

Ondoren. saiatu ziran zenbaitzu ¡gure Edorta ere bai! taldea eta kutxa eta erpiñeko gure ikuriña, argazki makinaz kopiatzen. ¡Artu bear ditu bereak eta [illegible] nik dakidan batek, makinaren ¡klixk! laiek, argazkilari trebearenak ez baziran!

Eta Gipuzkoa'ko "Mendizaleen" lendakari degun Leunda'tar Pa[illegible] lerakoei itz egin zien. Legazpi[illegible] jondeizutela" zion. Eta bere i[illegible] amaituaz gero, legazpiaren [illegible] "Ilintxa" begikoak agur eta [illegible] opa zizkigun guziei. Eta E[illegible] daren ereserkiaz azkendu zi[illegible] doki erpiñekoak.

AUSA - GAZTELU. — Me[illegible] oñak, ez dituk, ¡aranoa! ge[illegible] ten diranetakoak. Txindoki'ta[illegible] -Gaztelu'ko azpira jetxi gindu[illegible] kaldu egin bear ba emen!

Eta iturria berta, pago za[illegible] belar-biguna exerleku, an ase[illegible] gure gosea. ¿Ez al dakik me[illegible] taltzeaz? Kozinari on bat ta[illegible] kelarik ez aiz gaizki ibiliko. [illegible] dekoak ez ituken ¿ez al da e[illegible] munduko gauza. baño bagenizu[illegible] kumeak lagun, eta jan genian[illegible] miaxkatuz motel. Gero beriz, [illegible] na garbitzeko lanik ere ez ge[illegible] Maitre d'hotel zoratua genik[illegible]

LOPEZ MENDIZABAL'DAR[illegible] 'REN ITZALDIA.—¿Ausa-G[illegible] beririk bai al uken? Mendiza[illegible] kustera etori dek gizon pres[illegible] Pago zaren itzalpean bildu ga[illegible] ziak, asi zaiguk bere mintzal[illegible] rena eta zaarez zidak iduri e[illegible] "Eraneun, atzo, gaur eta bi[illegible] zan itzaldi-gala. Amabost mi[illegible] eraguna, geiagokoa batzutan, [illegible] xeagokoa bestetean. cundaka [illegible] ko atzo. Txindoki'ko leizea, M[illegible] 'ko sorgiña. Eta azkenik, A[illegible] ku'ko kondaira. Napar eta gi[illegible] arteko guda negargarriak ar[illegible] la. Au izan zan bil-bil egind[illegible] Mendizabal jaunaren itzaldia. [illegible] atsegiña, erakusgaria!

Bai ederki asi dala lan m[illegible] ontan "Mendizaleak" elkartea. [illegible] nak Ixaka jaunari eta zorion[illegible]

GORA.. BEERA... ETXERA. [illegible] itzaldiaz gero, etxeruntz gelem[illegible] detxo bat Ausa'runtz Baño la[illegible] tuk guziok Laraitz'en. Etxea [illegible] min, zurukaka dek legazpiare[illegible] bila. Agur! Agur! Ilintxa. Ezag[illegible] ez aiz geldi egotekoa! Batzuei. [illegible] agur guziei. Eta donostiarak e[illegible] sarak ere Aberi-Etxean galduk[illegible] neke gorputza. baño arin-arin. Ikusi dazakek, ibiliera ondoren [illegible] ari nauk.

¿Atsegin izan al zaik? Ator b[illegible] bercan gure etxepera. Onelako egokiak eratzen asi zaigun "M[illegible] leak" elkartearen babesera. [illegible] ikasi egingo dek. Ikasiz erakut[illegible] erakutsiz abertzaleagotu.

¡Bai dala edera Euzkadi!

UZT[illegible]

ERRIJETAT[illegible]

MARKINA

AUZO-JAYAK.—Markiña-aur[illegible] jayok, ba'duaz ospatubaiz, De[illegible] Amalo'n; Deun Kepa Barinaga'[illegible] Martin, Murua'n eta Deun K[illegible] Iturreta'n.

Orain, astion, uriko jayak dog[illegible] rijoneko ta zorigaiztoko Karme[illegible]

Zorijonekuak egun oretan ka[illegible] ren txadonan egin oi-dan txado[illegible] ederagatik; zorigaietakua, jai g[illegible] atzeri-usaña euki oi-dabelako.

BEDERATZIURENA.—Ama [illegible] 'guana ospetasunik andijenagaz [illegible] da Karmeldaren txadonan, goxo[illegible] retan eta zortziretan, eta ilunt[illegible] zortziretan. Oztetza aundija t[illegible] ratuten da, batez be goxeko a[illegible] Ordu onetan itzalditxu bat egi[illegible] egunero Ata Martin'ak, eta M[illegible] Alaba'k, urtero lez, abesti eder [illegible] murak abestuten dautsez eure[illegible] 'ri. Ixan be gero, Markiña'ko [illegible] Alaba'k ondo be ondo abestut[illegible] yuak dira.. Ederto, neskatilak, e[illegible]

DABILTZANAK.—Euren jayo[illegible] lkertalditxu bat egitera etorita[illegible] tu doguz Aginaga'tar Alesand[illegible] bere emazte Garai'tar Miren eu[illegible] metxu Sabin'agaz.

Gudaritzia amatuta etxeratu d[illegible] ralde'tar Pantzeska, gure ab[illegible] Zorijonak, Patxi.

Euren ikastarua azterketa a[illegible] amatuta erizatu yakuz Gantx[illegible] Terese, Azpiri'tar Miren, Dura[illegible] Pelikene ta Maguregi'tar Josef[illegible] ne irakaslemiak.

Udaldija igarotera gure erira[illegible] oi-diran sendiiak etori dira bana[illegible] naka. Ikasliak be bai euren ikas[illegible] amatuta.

Egun batzuk euren Markiña [illegible] igarotera etori dira, Onaindia'tar [illegible] mele ta Aginaga'tar Augustin, [illegible] emazte ta semetxu Andima'gaz.

"Barenda-nagusi" basetxe eder[illegible] lera udaldija igaroten etori da, [illegible] Ziarsolo'tar Jontxu, gure "Ab[illegible] ospetsubaren semetxu edera.

"MAÑARIKO,,'RI.—¿"Begelar[illegible] ete-nazan susmutxuba dozula? D[illegible] ain urin be susmo oregaz.

Beingo-alako neure lora-txo[illegible] ikuragaz dana aztuta nenguan. [illegible] rik eneukola ziguf dakit, ni[illegible] oreik emon eustazan laguntz[illegible] baratz ederian, lora mota asko [illegible] -aren zitoririk eztaukelako. Ba[illegible] rosak zenbat ziran ¿nor gogorat[illegible]

Aurten zen ikertutera juateko [illegible] batzuk ba-nebazan, baña neure [illegible] sok uts-emon dauste. Beste ute[illegible] jen danen baten ixango da. [illegible]

Euzkotar Umien Aldez

Sendikeriak (1)

"Alkaren ondoan exerita geunden: bera..."—Juan Clemente Zenea. (Traducción de Lucia de Musset.)

Ume-iztiatzaz idazten duten egile askok uste dute itz egiteko erak zer ikusi aundia duala umeak ondo edo gaizki azitzeko erakin.

Beste batzuek beriz alderantzira diote, au da, ez duala batere zer ikusirik etxean, sendian erabiltzen dan itz egiteko erak gurasoai zor zaioten maitetasun eta itzalarekin.

Urte batzuetatik onuntz, geure artean, ez izketan ari geranean baña bai idaztietan (eta olerkietan batez ere) senar-emazteak, eta senargai ta emazte gaiak alkarekin "i ta noka" itz egiten dute. Ez det ondo aurkitzen. Begira ordea: ez naiz ni euzkel-izti edo Gramatika'ren baratzan sartzen, ez da ori nere zeregiña ta, nik diotana umien aziera onari buruz diot.

Gure artean, euzkeldunen artean, senar-emazteok alkari bear dan begiramen eta itzalez itz egiteko oitura izan degu. Oitura ona, benetan. Gure euzko-abendak bere odolean darama alkari koipekeri gutxi egitea, baña senar-emazteak alkari zor dioten itzalik iñoiz ez galtzea ere baita.

Ni neonek, senar-emazteak alkari euzkeraz "i ta noka" itz egitea ijituen artean baño ez det ikusi, gizonak emakumeari astindu ederak ematen ere berdin, eta guztiz gaitz egiten zait itz egiteko era ori ontzat artzea.

Umien aziera onentzat bear bearekoa degu etxean aita eta amak alkarekin itzalez itz egitia. Alkari itzalez itz egitea (umien aurean batez ere) ez dago ez gogorkeriaren alde eta ez maitetasunen aurka.

Bai dira gurasoak, umeai alkarekin "i ta noka" itz egitea galerazoten diotenak anaiak arebatxoai batez ere, itz egiteko era ori ez dala azieradun umiena ta. Ez det nik orenbeste esan nai. Umeak, aizpatxoak, anaitxoak eta anai-arebatxoak alkarekin "i ta no" itz egiteak ez det uste aziera txararen agerpenik daukanik.

Baña neska-mutilak, bein aunditxoak egin eskero, eta batez ere alkar maite dutenean ez dute sendikeri oregaz alkarekin itz egin bear. Euzkaldunak serioak bai gera ba geure bizitzako agerkunde guztietan.

Erdaldunak oso beia jota daude gauza onetan (beste askotan ere bai ta). Neska-mutilak alkar ikusi orduko danak Tudela'tarak, iru bider alkarekin itz egin orduko bata bestiakin besotik elduta, eta alkar maitatzera edo alkar maite dutela uste izatera eldu eskero ezin esatekoak dira alkarekin edozein lekutan eta edozeñen aurean egiten dituzten sendikeriak? geyago. koipekeriak? geyago, itxusikeriak? geyago oraindik. Bene-benetako zikinkeriak.

Madrid'ko kalietan, egurastokietan tranbietan, eta Metro deritxon tximist gurdian ibili diranak esan lezakete egia diotan ala ez..

Ni izan naiz iñoiz Madrid'ko kalerik aundien batean sortzi urtedun ume batekin nijualarik, bikote baten aurretik ez igarotzearen atzera bira osoa eman eta beste kale batetik juaten.

Beste egun batean beriz baldin an inguruan poliziakorik ikusi izan ba 'nuan bikote aretzaz zerbait egiteko esango nion. Edo ta bintzat jarita zegoan aulkitik kentzeko.

Ez uzte izan gero notin txiroak edo ziranik. Ez gutxiago ere. Bosteun peseta edo balioko zituan txakur itxusi bat eurekin zuten, eta anderañoak gañera "carabina" esan oi dioten andre bat ere bai. Norantz begiratu ez zekiala zegoan bera aulkiaren beste ertzean.

ARITOKIETA.

(1) Itz onekin erderazko familiaridades esan nai nuke.